

ESKOLA KIROLA HERRI HEZITZAILEAREN IKUSPEGITIK ERALDATZEN

Eskola kirola, izenak berak dioen moduan, eskola kirola da, eta ez kirol eskola. Ez da hurrei kirola irakasteko tresna, edo ez luke hala izan behar behintzat. Oinherri eskola kirolak balioen hezkuntzarako tresna izan beharko lukeela uste dugu: kirolaren bidez elkarbizitzako oinarrizko baloreak, euskara, berdintasuna, aniztasuna, parte-hartzea eta naturarekiko kontaktua lantzeko tresna; hezkuntza ez delako eskola edota familiaren ardura soilik.

Azken finean hauxe da herri hezitzailearen filosofia; hezkuntza ulertzeko filosofia bat. Egun, hezkuntzaren ardura guztia familia eta eskolaren esku uzten bada ere, geroz eta argiago daukagu hezkuntza askoz eremu zabalago batean ematen den eta bizitza osoa irauten duen prozesu bat dela (eta ez haurtzaroan hasi eta amaitzen dena).

Hezkuntzaren ardura konpartitua denez, hezkuntza komunitateak, eskola eta familia baino askoz zabalagoa izan behar du. Udala eta herrigintzako eragileak barnebidu behar ditu. Herri Hezitzailearen filosofiak hauxe bera barnebiltzen du; gutako bakoitza hezitzaileak eta hezigarriak garelako aldi berean, jaiotzen garenetik hiltzen garen arte. Egunero egiten dugunarekin, berdin da zein alorretan jarduten garen, hezitzaile lan bat egiten dugula.

Ondorioz eskola eta familiaz gain norbanako, eragile, elkarte guztiok hezten dugu eta hezten gara. Gure ustez denok norabide berean edota balore antzekoetan hezteko adostuko bagenu ipar konpartitu baterantz hezten duen komunitate kohesionatu eta hezitzaile bat lortuko genuke; hau da, balio hezitzailetan hezten duen herri bat, non herriko ikastetxeak, aisialdiko eragileak, Udala zein herrigintzan dabilzan eragileak inplikaturik egongo liratekeen, herri mailako hezkuntza proiektu bat lortzeko. Eta eskola kirolak hezkuntza proiektu honen parte izan beharko luke.

Eskola kirola hezitzailea izan dadin, kirola bere horretan helburu izatetik balioen hezkuntza lortzeko tresna izatera pasa beharko litzateke, eta honetarako ezinbestekoak dira eskola kirolaren antolakuntzan parte hartzen duten ikastetxe, hezitzaile, udal eta gurasoen arteko **elkarlana eta komunikazioa**. Bakoitzak bere eremutik, baina denak ikuspegi berarekin, eskola kirolaren bidez, **herriko hezkuntza komunitatea saretzeko** aukera aprobetxatuz.

Are gehiago, eskola kirolak herriko beste arloetako eragileekin elkarlanera aukerak aprobetxatu beharko litzatekeela gaude. Zergatik ez antolatu herriko argazki elkartekoekin mendiko argazki rally bat eskola kirolaren baitan? Edota familian egin daitekeen kirol planen bat herriko aisialdi taldearekin elkarlanean? Elkarlanerako aukerak milaka dira eta elkarlan hauetatik sortuko liratekeen sinergiekin, ziur gaude egundoko osotasuna emango lioketela eskola kirolaren egitasmoari herri mailan.

Honez gain, **eskola kirolaren erdigunean haurra eta bere beharrak** (emozional, afektibo eta kognitiboak) kokatzea eta hezkuntza komunitatean eskola kirolaren bidez zein balio landu nahi ditugun adostea ere nahitaezkoa litzateke, guk denok eskola kirolaren baitan jokatzeko dugun hezitzaile paperaz kontzientzia hartu eta haurraren ongizatea bermatzeko adostasunak bilatuz.

Eskola kirola hezten duen gunea izanik, Oinherri Eskola Kirolaren ekimenak ere balio hezitzailetan oinarritzea nahi genuke. Haurren hezkuntzak eta baita helduenak ere, balio

hezitzaileak ekarri behar dituela berekin uste dugu, bai edukietan eta baita egiteko moduetan ere. **Aniztasunaren errespetua, parekidetasuna eta aukera berdintasuna dira horietako hiru; laugarrena berriz, bestearen onarpena, inklusioa.** Balio hauek oinarrizko eta abiapuntuko balio gisa har daitezke.

Egiteko moduetan **haurra subjektu aktibo** izan dadin erabiltzen ditugun moduetan arreta jarri behar dugu, eskola kirolaren ekimenean ere iritzi, eztabaida eta erabakidun pertsona bezala aintzat hartuz. Izan ere, aisia eta heziketa eredu guztiak ez dira berdinak, denak ez dira hezitzaileak ezta balekoak ere. Eskola kirolean parte hartzen duen haurra zerbitzu baten erabiltzailea izatetik, egitasmo horren protagonista izatera pasatzea nahiko genuke. Haurrentzako eskola kirol eredu bat antolatzen, hurrekin, beraiekin, bearrien interesatetik abiatuz, eskola kirola eredu bat sotzea izango litzateke asmoa.

Oinherriren ustetan aisia edo heziketa proiektuak hezitzailea izateko beharrezkoa du jarduera garatzen den errealitatearen beharrei erantzutea. **Tokian tokikoa izatea**, bertakoek eta bertarako diseinatua, ez eredu estandar baten hamaikagarren aplikazioa. Alboko eskualde, herri edo lurraldeetako ereduak partekatuko ditugu foro honetan, inspiraziorako zein gakoak jasotzeko adibide gisa. Hala ere, ondoren tokian tokiko familiek, eragileek, ikastetxeek, udalek zein hurrekin eman beharko diote forma beraien herriko proiektuari.

Herri hezitzaile bat lortzeko bidean kirola tresna bikaina dela uste dugu, egungo gizartean kirolak duen presentzia eta garrantzia eztabaiaezina baita. Egunerokotasunean mezu andana iristen zaizkigugu batez ere kirol jakin batzuen inguruan, hainbat kasutan, kontrabaliok edo balio negatiboak transmitituz. Kirol jardueretan izandako lehiak esaterako bereziki irabazle izan direnak nabarmentzen dira komunikabide eta sareetan, kirolean edozein prezioan irabazi beharra dagoenaren mezua zabaltzen delarik. Ikuspegi hegemoniko horri hezkuntzatik begiratzea proposatzen dugu, eta kirola egungo gizartean dugun eremurik eragingarrienetakoa dela jakinik **jendarte eraldaketa hezitzailearako norabidean** kokatzea.

Azken finean, korrante hegemoniko honi denon artean alternatiba bat eraikitzen joatea litzateke ideia. Errendimendua helburu duen kirol entrenamenduan alde batera utzi eta kirola jolas moduan planteatzen proposatzen dugu; ondo pasatzeko, gozatzeko, geure burua eta gorputza hobeto ezagutzeko, gu geu eta ondokoak zaintzen ikasteko... bizi ohitura bat bezala lantzea proposatzen dugu.

Honetarako, eskola kirola ikastetxeetatik edota kirol instalazioetatik herriko kaleetara ateratzea proposatzen dugu. **Herria jolas gune** moduan berreskuratzeko eta kirola ulertzeko modu eraldatzaile hau ikusgarri bilakatzeko.

Eskola Kiroleko proiektuek balio hezitzaileak lantzeko konpromisoa eta ahalegina izan beharko luketela uste dugu. Ideia horri tiraka Oinherritik Euskal Herrian Eskola Kiroleko proiektuak herri hezitzaileen norabidean kokatzeko gune izan nahi du zuekin martxan jarri nahi dugun foro honek, urrats horiek kirolaren ikuspegia eta izaera ere bideratzen lagunduko dutela sinesten baitugu.

Honetan ere txikienaren neurriak lagunduko digula uste dugu; kirolari profesionalen begietatik baino **haurren ikuspegitik begiratzea** dagokigula, hurrekin eseri eta altuera beretik begiratuz, beraiek mugimenduan, jolasean, lagunartean kirola egitean bilatzen duten plazera eta gozamina helduok ere gogora ekarriz. Gu geu behin izan ginen haur haiek bezala.